

Ardatz estrategikoa:	2. ardatza.- Herritarrekiko elkarrekintza	Proiektua:	2.4. Zerbitzu elektronikoen erabilera sustatzea		
Azpiproiektua:	2.4.2. Identifikazio eta sinadura elektronikoen modu berriak				
Deskribapenaren laburpena:	Aitortutako sinadura elektronikoen ordezko soluzioak abiarazi nahi dira, konplexutasun teknologiko txikiagoa dutenak eta zerbitzu elektronikoen erabilera errazten dutenak.				
Helburu orokorrak:		Helburu operatiboak:			
<ul style="list-style-type: none"> • Zerbitzu elektronikoen erabilera sustatzea • Zerbitzu elektronikoen erabilgarritasuna hobetzea 		<ul style="list-style-type: none"> • Herritarrak: izapide elektronikoen %25 • Enpresak: izapide elektronikoen %75 • Herritarren gogobetetasuna, 10etik 8koa 			
Egikaritzea:					
<ul style="list-style-type: none"> • 2016. urtean, itsasontzi-jokoan oinarritutako sinadura elektronikoa aurreratua zabaldu da Eusko Jaurlaritzan. Beraz, Eusko Jaurlaritzaren ZUZENEAN-Herritarrei Arreta emateko Zerbitzuko bulegoetan dagoneko erabili daitezke identifikaziorako eta sinadurarako bitarteko elektronikoa mota hori, bat eginez sistema hori dagoneko erabiltzen zuten erakundeekin, zeinak baitira Osakidetzako osasun-zentroak eta KZguneak. • Sistema berri horrekin funtzionatzeko, PLATEA-Tramitazio Elektronikorako plataforma korporatiboa egokitu da dagoneko, baita espediente-bolumen handiak kudeatzen dituzten sailtako hainbat aplikazio ere, hala nola Familiakoak eta Etxebizitzakoak. Progresiboki, espedienteak kudeatzen dituzten sailtako aplikazio guztiak joango dira egokitzen, herritarrei zuzenduriko Eusko Jaurlaritzaren prozedura guztiak itsasontzi-jokoan oinarrituriko sistema honen bitartez tramitatu ahal izateko. • Eusko Jaurlaritzaren PLATEA-plataforma korporatiboaren bidez aurkeztutako datuen arabera, 2016an eskaeren %48,6 elektronikoki tramitatu dira, eta gainerako %51,4a, presentzialki. Ez da bereiztu nortzuek aurkeztu dituzten eskaerak, pertsona fisikoek ala juridikoek, baina ikusten da beren zerbitzuak batez ere enpresei ematen dizkieten sailtan igo dela eskaera elektronikoen portzentajea. Hala, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailean %75,9koa da elektronikoki egindako eskaeren kopurua, eta Ingurumen eta Lurralde Politika Sailean, % 95,1koa. 					
Arduraduna:	Aldi baterako aurreikuspena:	Egikaritzeko benetako epea:		Egoera:	Balorazioa:
DACIMA	Epea: 3 urte Hasiera: 2014 Amaiera: 2016	Hasiera: 2014 Amaiera:		<input type="checkbox"/> Amaitua <input checked="" type="checkbox"/> Aribidean <input type="checkbox"/> Hasi gabe	<input type="checkbox"/> Positiboa <input checked="" type="checkbox"/> Hala-nolakoa <input type="checkbox"/> Negatiboa
Oharrak:					